



## ERREGISTRO ZIBILA GAUR EGUNERA ARTE GERATZEA. ZEREGIN ZAILA BAINA EZ EZINEZKOA

### LABen proposamena

---

Gai honi dagokionez, sailak dio ez daukala ministerioaren berririk. Erakunde sindikalen atxikimendua bilatzen duen agiria eman ziguten, pribatizazioari aurre egingo dion alternatiba Ministerioari aurkezteko asmoz. LABek ezin du sinatu, zerikusirik ez duten bi kontu nahastu dituelako sailak: idazkarien transferentzia eta erregistro zibila kudeatzea.

Aipaturiko agiria, mobilizazioei eta plataforma sindikalak eskatu genion konpromisoari JAZk emandako erantzuna da. Testu hura hasi genuen adostasunik handiena bilatzen. Goian aipatutako gaiak nahasturik zeuden zatiaren kontra agertu zen LAB. Gehiengoak erabaki zuen, baina.

Horiek horrela, 20/2011 Legearekin eta Eusko Legebiltzarraren ez legeko proposamenarekin bat egiten duen kontraproposamena idatzi dugu: Eusko Jaurlaritzak beregana ditzala kudeaketa eskumenak zein eskumen betearazleak, lanpostuak bermatzea asmoa izanik. Testua posizio guztiak gogoan harturik osatu genuen eta helburu nagusi batekin: agerian jartzea alternatiba bidagarria, gaur egun egingarria, egon badagoela. Horrek ez ditu lanpostu guzti-guztiak soilik bermatzen, Erregistro Zibilak zerbitzu publikotzat eta doakotzat jarraitzea ere baizik.

Kontraproposamen hori (informazio orri honi atxikia) eraman genuen batasun sindikalera, plataforma gisa aurkezte aldera, ez LABen izenean bakarrik. Bada, hori ezin izan da, oraingoz. Erakunde sindikal guztien artean adostutako puntu guztiak, idazkari judizialena izan ezik, jaso dituelakoan gaude. Erregistro Zibileko legea eskuan eta gaur egungo egoera aintzat, LAB sinesturik dago idazkariak sartzea ez dela ezinbestekoa. Hala ere, ez dugu ez aukera hori ez besteren bat bazteartzen. Baina aurrerago egin beharreko eztabaida da hori (Eusko Jaurlaritzak kudeatze eskumenak eta eskumen betearazleak bereak egin dituela bermaturik eta ziurtatuta lanpostu guztiek jarraituko dutela eta Erregistro Zibila zerbitzu publikoa eta doakoa izango dela aurrerantzean ere. Horrezaz gain, egun gauza daitekeen gaia (Erregistro Zibila Eusko Jaurlaritzaren esku), Madrilek zein Gasteizek proposamenari ezetz borobila esateko aitzakia izan daitekeen beste gai batekin (idazkariak transferitzea) nahastea akats larria da.

LABen jarrera ez da berria:

1. Ez ministerioak ezta EJK ere ez badute nahi gure proposamena onartu -edo lanpostu guztiak eta erregistro zibila zerbitzu publikotzat eta

doakotzat bermatuko lituzkeen besteren bat-, LAB amaiera arte borrokatuko da lanpostu guztien alde. Ez izan dudarik.

2. Gure aldarrikapenak: osoko transferentziak, ministerioak dituen eskumen berdinekin -idazkariak transferitzea barne- eta "izaera nazional"eko kidegoak desagertzea. Aintzindari izan ginen horiek aldarrikatzen, bakarka; pasa den legegintzaldian, aldiz, PSEk ere eskatu zituen "izaera nazional"eko kidegoak desagertzea eta idazkariak transferitzea, nabar-nabarmena baita ezinbestekoa dela. Tamalez, sindikatu guztiak ez dauzkagu alde.

Baina, pribatizazioari aurre egiteko premia handia dugu: erregistro zibilaren kudeaketak Eusko Jaurlaritzaren menpe behar du egon. Eta ez dugu nahastu behar beste borrokabide batzuen bitartez egin beharreko errebindikazioekin.

Kontraproposamen hau egingarria, errealista baita; justizia administrazioko langileen gehiengo ia osoaren adostasuna jasotzen baitu; horien sindikatuena ere bai; Eusko Legebiltzarraren...; eta Erregistro Zibileko 2011ko legearekin erabat zuzena baita eta ez ahaztu Espainiako Parlamentuan PPK, PSOEk eta EAJk baiezko botoa eman zutela.

Aipaturiko lege horren arabera, erregistro zibileko arduraduna administrazio orokorreko A1 kidegoko funtzionarioa izango da -gure kasuan, EAEkoa- edo idazkari judiziala zerbitzu berezietan, administrazio autonomikoaren agindupean.

LABek aldezen duena da euskal administrazioko langileak izatea erregistro zibileko arduradunak; eta inoiz transferentzia erdietsiko balitz, idazkariei ere aukera hori irekitzea.

Transferentzia hori dela eta, oso komenigarria da alde dauden idazkariak berariazko eskabidea egin diezaietela dagozkien erakundeei, ministerioari, Eji...).

**Gure proposamena aurkezten diogu Justizia Administrazioko Zuzendariari eta gure esku dagoen guztia egingo dugu onar dezan ez ezik gero eta adostasun sozial handiago jaso dezan.**

Euskal Herria, 2014-05-14

Informazio orri honi hauek ere atxikitzen ditugu:

- JAZren proposamena
- LABen kontraproposamena

